

## A2.1 Maila

## IRAKURMENA

---

Lagun batek etxeko lanei buruz hitz egin digu. Irakurri, eta esan: zein etxeko lan gustatzen zaio? Zein ez zaio gustatzen?

### ETXEKO LANAK 1

Etxeko lanak! A zer astunak diren! Baina, gustatu edo ez gustatu, guztiak egin behar dira, ezta? Goizero goizera, altxatu ondoren, ohea egin behar da; niri ez zait inporta, oso erraza delako. Gero erosketak egin behar dira, eta hori oso gauza astuna dela iruditzen zait: zer erosi pentsatu, dendaz denda ibili, poltsak etxera ekarri...

Etxera heldu bezain laster, berriz, jatekoa prestatzen dut poz-pozik. Zein gauza ederra den! Txarrena da gero harrikoa egin behar dela. Gauean, afaldu eta gero, zaborra ateratzen dut atsegin handiz, ondoko tabernara joateko aprobeztatzen dudalako... Eta horrela egunero. Asteburuan, aldiz, beste etxeko lan batzuk egiten ditut. Batzuk, adibidez, oso gustura egiten ditut: hautsa kendu, erratza pasatu, garbigailua jarri, arropa batu eta eseki...

Beste batzuk, ordea, ez dira hain atseginak: leihoak garbitu, arropa lisatu, komuna garbitu, landareak zaindu... Baina etxeko lanen artean zein den gorrotagarriena galdetzen badidazue, bat esango dizuet: nik ez dut botoirik josten; baina ez zait inporta, botoirik gabeko arropa erabiltzen dut eta....Kar, kar, kar!

	<b>GUSTATZEN ZAIO</b>	<b>EZ ZAIO GUSTATZEN</b>
1. HARRIKOA EGITEA		
2. KOMUNA GARBITZEA		
3. ARROPA ESEKITZEA		
4. ARROPA BATZEA		
5. LEIHOAK GARBITZEA		
6. HAUTSA KENTZEA		
7. ERRATZA PASATZEA		
8. LANDAREAK ZAINZEA		
9. GARBIGAILUA JARTZEA		
10. EROSKETAK EGITEA		
11. JATEKOA PRESTATZEA		
12. BOTOIAK JOSTEA		
13. OHEA EGITEA		
14. ARROPA LISATZEA		
15 . ZABORRA ATERATZEA		

## ETXEKO LANAK 2

Orain esan adierazpen hauek EGIA ala GEZURRA diren:

	EGIA	GEZURRA
Lagun horri ez zaio gustatzen erosketak ekartzea.		
Lagun horri ez zaio gustatzen zer erosi behar duen pentsatzea.		
Lagun horri gustatzen zaio afaldu eta gero alboko tabernara joatea, zaborra atera ondoren.		
Lagun horri gustatzen zaio dendaz denda ibiltzea.		

### ETXEKO LANAK 3

**Ea asmatzen duzuen orain zuk bakarrik bikote egokiak osatzen. Lotu gezien bidez.**

HAUTSA

GARBITZEA

BOTOIAK

JARTZEA

HARRIKOA

KENTZEA

ZABORRA

ZAINTZEA

GARBIGAILUA

PASATZEA

JATEKOA

ATERATZEA

ERRATZA

JOSTEA

KOMUNA

PRESTATZEA

LANDAREAK

EGITEA

ARROPA

LISATZEA

# ERANTZUNAK

## ETXEKO LANAK 1

1. EZ ZAIO GUSTATZEN
2. EZ ZAIO GUSTATZEN
3. GUSTATZEN ZAIO
4. GUSTATZEN ZAIO
5. EZ ZAIO GUSTATZEN
6. GUSTATZEN ZAIO
7. GUSTATZEN ZAIO
8. EZ ZAIO GUSTATZEN
9. GUSTATZEN ZAIO
10. EZ ZAIO GUSTATZEN
11. GUSTATZEN ZAIO
12. EZ ZAIO GUSTATZEN
13. GUSTATZEN ZAIO
14. EZ ZAIO GUSTATZEN
15. GUSTATZEN ZAIO

## ETXEKO LANAK 2

EGIA  
EGIA  
EGIA  
GEZURRA

## ETXEKO LANAK 3

KENTZEA  
JOSTEA  
EGITEA  
ATERATZEA  
JARTZEA  
PRESTATZEA  
PASATZEA  
GARBITZEA  
ZAINZEA  
LISATZEA